

Prentsa oharra

Nota de prensa



IRAILA, ENPLEGUA IGO DEN LEHEN HILABETEA DONOSTIAN, ALARMA EGOERA EZARRI ZENETIK

Iraila izan da Donostian langabeziak behera egin duen lehenengo hilabetea alarma egoera geroztik, azken zazpi hilabeteetako joera negatiboa hautsiz.

Enrique Ramos Ekonomia Bultzatzeko eta Enplegua Sustatzeko zinegotziak adierazi duenez, "Irailan baino 104 langabe gutxiago izan dira; beraz, guztira 9.526 langabe daude, horietatik 5,154 emakumeak eta 4.476 gizonak. Gure hiriko langabeziak emakumeena izaten jarraitzen du".

Egia esan, osasun-krisiaren ondorioz sortutako egoerak eragina izan du, lurralde eta herrialde guztietan bezala, batez ere ekonomian eta enpleguan. Urte arteko konparazioaren arabera, iazko irailan 7.171 langabe zeuden Donostian, eta aurten, berriz, 9.526; hau da, % 32,8 gehiago.

Alarma egoera ezarri zenetik, 1.923 langabe gehiago daude gure hirian, hau da, % 25,3 gehiago.

Prensa oharra

Nota de prensa



25 urtetik beherako gazteak dira irailean langabeziak gora egin duen adin-tartea, 73 langabe gehiago erregistratu baitira, langabe guztien % 6,7tik % 9,1era (erregistratutako kopurua: 915); aldiz, langabezia jaitsi egin da 25-45 urteko adin-tartean (guztira: 3.930) eta 45 urtetik gorakoen artean (guztira: 4.681).

Hala ere, Ekonomia Sustatzeko zinegotziak adierazi duenez, "Bizi dugun egoera ez da inorentzat ona. Hiriko ekonomiaren oinarrietako batzuk, hala nola zerbitzuen sektorea, merkataritza eta ostalaritza, bolada txarrean daude oraindik, eta horrek langabeziari buruzko datuak ematen ditu. Udala laguntza-programa berriak prestatzen ari da, egoera hori arintzen saiatzeko, ahal dugun neurrian. Iraileko datuek, behintzat, arindu egin dute apur bat, eta, espero dugu, mantendu egingo dela eta joera aldaketa izango dela".